

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2448

*AGINDUA, 2022ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena.*

EAEko hezkuntza-sistemarentzat ezinbestekoa da bertan sartuta dauden gizarteko sektore guztien parte-hartzea eta haien guztien laguntza, ezarrita dauzkan helburuak lortuko baditu. Zehazki, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 29. artikuluan xedatzen da gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea dutela haurren eta nerabeen eskolako hezkuntzaren jarraipena egiteko eta hartan parte hartzeko.

EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planak, Heziberri 2020 Planaren barruan, lerro estrategikoak zehazten ditu euskal hezkuntza-sistema osoa zuzentasunaren eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz joateko funtsezkotzat jotzen diren alderdiak antolatzeko. Lehenengo lerro estrategikoak (IE 1: Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza) nahitaezkotzat jotzen du hezkuntza-komunitate osoa (irakasleak, zuzendaritza-taldeak, irakasle ez diren langileak, eta familiak) prestatzea. Eta, familiei dagokienez, beren prestakuntza eta parte-hartzea funtsezko kate-mailatzat jotzen ditu hezkuntzaren arrakastaren ekuazioan. Bigarren lerro estrategikoak (IE 2: Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta) zehazten du nola erantzun behar dion gizarteak, eta derrigorrezko hezkuntzak, horren parte den aldetik, aniztasunari; praktikan, berekin dakar hezkuntza-erantzunaren ardatza aldatzea kalitateko hezkuntza justu eta ekitatibo batera, guztiei aukera berdinak emango dizkien hezkuntzara.

Hirugarren lerro estrategikoak (IE 3: Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan) euskararen gainean ezarriko du hezkuntza eleaniztunaren ardatza, bi hizkuntza ofizialen arteko egungo desoreka gainditzeko –gaur egun gaztelaniaren aldekoa baita– eta berdintasun soziala, bi hizkuntzen arteko berdintasuna eta ikasleen aukera-berdintasuna sustatzeko. Laugarren lerro estrategikoak (IE 4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) nahitaezko ikusten du teknologia digitala sartzeari, ikasketa-metodologia eraldatzaile batetik abiatuta.

Beraz, heziketa integrala lortzeko, irakaskuntza arautuak behar-beharrezkoa du jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzea, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planeko lerro estrategikoekin lotutakoak. Eta horiek garatzeko, ezinbestekoa da, beste zenbait eragileren artean, kooperatiba gisa eratutako ikastetxeen parte hartzea.

Ondorioz, Hezkuntza Sailak arrazoizko ikusten du irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako berriazko deialdia egitea eta horrela laguntzea, aurrekontu-mugen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz besteko mailetakoa ikasleentzako hezkuntza-jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak abiarazten. Irakaskuntza-kooperatibek antolatuko dituzte jarduera horiek, eta, horretarako, erregistroan hala inskribatuta egon behar dute.

Aipatutako guztiarekin bat, egokia da laguntza-deialdi bat egitea, horretarako esleitutako aurrekontu-zuzkiduraren kargura.

Horregatik, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren

VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua –Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eremuko dirulaguntzak erregulatzeari buruzkoa–, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzko araudia –zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua–, eta otsailaren 23ko 71/2021 Dekretua –zeinaren bidez ezartzen baita Hezkuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala–, abenduaren 23ko 11/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kooperatiben gastuei aurre egiteko dirulaguntzen deialdia egitea. Gastuok 3. artikuluan zerrendatzen diren diruz lagundu daitezkeen jardueren ondoriozkoak izan behar dute, eta 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 2ra bitartean sortutakoak.

##### 2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Helburu horretarako, hogeita hamahiru mila (33.000) euroko kreditua esleitzen da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan 2022. urterako.

##### 3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hezkuntza Sailak, deialdi honen bidez, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planeko ildo estrategikoei lotutako prestakuntza bultzatzen du, eta, batez ere, ildo hauekin lotutakoa.

##### IE 1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza.

##### IE 2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta.

##### IE 3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan.

##### IE 4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak.

Agindu honetako laguntzak helburu hauek betetzeko dira:

a) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleen gurasoei bideratutako prestakuntza-jarduerentzat, baldin eta irakaskuntzok atxikita badaude Hobekuntza Planeko lerro estrategikoei, eta inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia aintzat hartuz diseinatu eta garatzen badira. Gastutzat hartuko dira ikastaroak, mintegiak, tailerrak, konferentziak, eta horiek antolatzeak dakartzanak (hizlariaren joan-etorrietarako, ostaturako edo mantenurako dietak, lokalen alokairua, prestakuntza-jarduerari lotutako materiala erostea).

b) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei bideratutako prestakuntza-jardueren gastuentzat, baldin eta irakaskuntzok atxikita badaude Hobekuntza Planeko lerro estrategikoei, eta inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia aintzat hartuz diseinatu eta garatzen badira. Gastutzat hartuko dira ikastaroak, mintegiak, tailerrak, konferentziak, eta horiek antolatzeak dakartzanak (hizlariaren joan-etorrietarako, ostaturako edo mantenurako dietak, lokalen alokairua, prestakuntza-jarduerari lotutako materiala erostea).

c) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei bideratutako jarduera osagarrietarako gastuentzat (irteerak, txangoak, topaketak), baldin eta irakaskuntzok atxikita badaude Hobekuntza Planeko lerro estrategikoei, eta inklusioaren eta

hezkidetzaren ikuspegia aintzat hartuz diseinatu eta garatzen badira. Gastutzat hartuko dira jarduera osagarriak antolatzeak dakartzanak (ostatua, joan-etorriak, dietak, lokalen alokairua, jarduera osagarriari lotutako materiala erostea).

Inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia zera da: proposatzen diren ekintzetan kontuan hartuko dela ikasleen artean dagoen dibertsitatea (generoa, kultura, hezkuntza-behar espezifikoak eta bereziak), bai eta haien familietan dagoena ere, eta behar diren neurriak hartuko dira ikasle guztiek parte hartu ahal izan dezaten ekintza horietan.

#### 4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Honako hauek izango dute deialdi honetan parte hartzeko eta laguntzen onuradun izateko aukera: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko mailen irakaskuntza-kooperatibak, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako zikloetako eta Batxilergoko hezkuntza-mailak ematen dituztenak, zuzenbidearen arabera eratuta badaude eta haien helburuek bat egiten badute indarreko legedian ezarritakoarekin, eta dagokion kooperatiben erregistroan izena emanda badaude, hezkuntzako kalifikazioarekin.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan azaldutako egoeraren batean dauden erakundeak ezingo dira onuradun izan.

3.– Gainera, erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Baldintza horiek dirulaguntza likidatu arte bete behar dira, eta horiek betetzen direla egiaztatuko da dirulaguntza eman eta ordainketak egiten diren unean.

b) Laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, berariaz aipatuta sexu-bereizkeriagatiko debekuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

#### 5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek baliabide elektronikoak erabiliko dituzte eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak; ebazpen horren bidez, PLATEA E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartu zen.

3.– Eskabide-orriak eta erantzukizunpeko adierazpenak modu elektronikoan nola egin jakiteko argibideak eta ereduak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0085010>

4.– Eskaeraren ondorengo izapideak elektronikoki egingo dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» izeneko atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan izapideak bitarteko elektronikoen bidez egiteko ordezkari bat izendatzen denean, pertsona horrek alta emanda egon beharko du Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko Ordezkarien Erregistro Elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>

6. artikulua.– Gutxienezko eskakizunak egiaztatzea.

1.– Dagokion irakaskuntza-kooperatiben erregistroan inskribatuta dagoela eta alta emanda dagoela ofizioz egiaztatuko da, baldin eta kooperatiba Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago. Hala ez bada, kooperatibak egiaztagiririk aurkeztu beharko ditu.

2.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteaz batera eskatzaileak laguntza ematen duen organoari baimena ematen dio zuzenean egiaztatu dezan laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua betez, erantzukizunpeko adierazpen bat sartu beharko da eskabidean, honako betebeharrak egiaztatzeko:

a) Xede eta helburu bererako administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuetatik laguntzarik edo dirulaguntzarik jasotzen ez aritzea.

b) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

c) Eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio-arloan, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

d) Eskatzailea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo/ eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan; baldintza hori dirulaguntzaren likidazioa egin arte mantendu behar da.

e) Ordainduta izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak; baldintza hori dirulaguntzaren likidazioa egin arte mantendu behar da.

4.– Eskarrietan aukera izango da laguntzak eskatzen dituen erakundeak berariaz adieraz dezan baimena ematen diola organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak lortu edo egiaztatzeko, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak eragotzi gabe.

5.– Betekizunak eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik egiaztatuko dira, edo, eskabidea zuzendu egin behar bada, zuzenketa-epean; horretarako, dagokion ziurtagiria aurkeztuko dute, edo baimena emango dute organo kudeatzaileak zuzenean egiaztatu dituzan.

6.– Era berean, prozedura honetan parte hartzen duten erakundeek baimena ematen diote Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiaztatu dezan aurkeztutako agiriak benetakoak direla.

## 7. artikulua.– Eskabidea aurkeztea, eta epeak.

1.– Eskabide-orriarekin batera (I. eranskina), erakunde eskatzaileek «Gastuen aurrekontua» izeneko formulario normalizatua (II. eranskina) aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta. Ereduak eskuragarri daude Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0085010>

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta epemugako hilabetean amaituko da, argitalpena egin zen egun berean. Baldin eta epemugako hilabetean ez badago egun baliokiderik, epea hilaren azken egunean amaitzen dela ulertuko da, eta hilaren azken eguna baliogabea bada, epea luzatu egingo da lehen egun baliodunera arte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikulua ezartzen duenaren arabera.

3.– Dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0085010>

4.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete dokumentazioa, beraiek nahi duten eran. Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko mailen irakaskuntza-kooperatiba batek ofizialki onartutako bi zentrotan badihardu, bi eskabide egingo ditu, zentro bakoitzeko bat. Zentro batean bi irakaskuntza-kooperatiba edo gehiago badaude, irakaskuntza-kooperatiba eskatzaile bakoitzak adieraziko du ikasleen zer ehuneko ematen dion zerbitzua, «Gastuaren aurrekontua» izeneko formulario normalizatuan.

## 8. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

1.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioa osorik beteta ez dagoela edo nahitaezko agiri guztiekin batera aurkezten ez bada, pertsona interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akats hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Epe horretan zuzenketa egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da. Kasu horretan, Administrazioak eskabide horri buruzko ebazpena emango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

2.– Akatsak zuzentzeko jakinarazpena bide elektronikoz egingo da.

3.– Jakinarazpena burututzat joko da interesdunak jakinarazpena jaso izanaren agiria elektronikoki sinatzen duenean.

4.– Jakinarazpen elektronikoa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa «Nire Karpeta» atalean kontsultatu beharko da. Jakinarazpena bidali eta interesduna hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena ezetsizat hartuko da, eta izapidea gauzaturat. Prozedurak jarraitu egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sartzea.

5.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunari jakinarazpenen abisua bidaltzea, SMSak edo mezu elektronikoa igorritik, eskabideetan jarri zituzten telefono

mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

9. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Dirulaguntzak: Ikastetxe eta Plangintzari dagozkionak.

- Arduraduna: Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

- Helburua: 0-3 urte bitarteko udal titulartasuneko haur eskolak diruz laguntzea, eta baita, musika eta arte plastikotako ikastetxeak, Irakaskuntza Kooperatibak, guraso elkarteak eta euren federazio eta konfederazioak, eta Helduen Hezkuntzako ikasle elkarteak.

- Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- Hartzaileak:

- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

- Ekonomia eta Ogasun Saila.

- Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

- Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

[www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-cap2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-cap2-eu.shtml)

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra ([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)).

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. ([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf))

10. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

11. artikulua.– Dirulaguntzak zenbatzeko prozedura.

1.– Laguntzen banakako zenbatekoa zehazteko, artikulua honetan ezarritako banaketa-sistema aplikatuko da. Zenbateko hori ez da inola ere izango kooperatiba bakoitzak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa:

a) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleen gurasoen prestakuntza-jardueren gastuak, gehienez ere, jarduera horien kostuaren % 100ean ordainduko dira.

b) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak, gehienez ere, jarduera horien kostuaren % 100ean ordainduko dira.

c) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei zuzendutako bestelako jardueren gastuak –11.1.b) artikuluan jasota ez daudenak–, gehienez ere, jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko dira.

2.– Hauxe izango da banaketa-sistema:

a) 162 euroko hasierako laguntza bat esleituko zaie onartutako eskabide guztiei.

b) Jarraian, kooperatiba bakoitzari esleituko zaio bi puntuazio hauen batura:

I. Diharduen zentroetako ikasle-kopuruagatik dagokion puntuazioa. Puntu bat emango da ikasle bakoitzeko.

II. Zentroko bekadunen kopurua bider hiru egitean lortutako puntuazioa.

Kooperatiba bakoitzari esleitutako ikasleen eta ikasle bekadunen kopurua eskabidea aurkezteko epea amaitzean dokumentazio estatistikoko ofizialean jasotakoa izango da.

c) Deialdiaren zenbatekoari (33.000 ) euro hasierako laguntzen zenbatekoa kenduko zaio. Kenketa horren emaitza izango da banatu beharreko soberakina.

Banatu beharreko soberakin hori kooperatiba guztiei emandako puntu guztien baturarekin zatituko da, eta faktore konstante horrekin biderkatuko da kooperatiba bakoitzari esleitutako puntuazioa.

d) Lortutako zenbatekoari hasieran emandako 162 euroko laguntza gehituko zaio, kooperatiba bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zehazteko.

12. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak batzorde bat izendatuko du, laguntzak esleitzeko proposamena egiteko. Hauek osatuko dute batzordea:

a) Ikastetxeetako Plangintza eta Batxilergoa Zerbitzuaren zuzendaria edo hark izendatzen duen ordezkaria: batzordeburu jardungo du.

b) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako Berrikuntza Pedagogikorako lurralde-burutza bakoitzeko ordezkari bana.

c) Ikastetxeetako Plangintza eta Batxilergoa Zerbitzuko ordezkari bat; idazkari jardungo du.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak emango du eta interesdunei jakinaraziko zaie Eusko Jaurlaritzako Egoitza Elektronikoko argitaratuz (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), sei hileko epean, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Aurkeztutako eskaerei dagokienez, kooperatiba onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da edo, dagokionean, eskaera ezesteko edo ez onartzeko arrazoiak.

Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, SMSak edo mezu elektronikoak igorri, eskabideetan jarri zituzten telefono

mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

Gainera, dirulaguntzak emateko ebazpena EHAAn argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

2.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Artikulu honen lehenengo zenbakian aipatutako epea igarota, ebazpena onuradunei jakinarazten ez bazaie, dagokion eskabidea ezetsi egin dela uler dezakete onuradunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren ondorioetarako.

14. artikulua.– Dirulaguntzen bateraezintasuna.

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak bateraezinak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu berarekin emandakoekin.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotakoak, finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriak barne, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18. artikuluan 4. zenbakian eta 46. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua) ezarritakoak.

a) Jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Laguntza eman dien erakundeari justifikatzea baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela, bai eta laguntza ematea edo laguntzaren onura jasotzea ekarri duen jarduera egin dutela ere.

c) Dirulaguntza ematen duen administrazioak egiaztatzeke egiten dituen jarduketak egiteko laguntza ematea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketetarako ere.

d) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea dirulaguntza eman duen erakundeari.

e) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu bada, horren berri ematea laguntza eman dien erakundeari.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, jakinarazpenaren osteko hamar eguneko epean ez bada berariaz eta idatziz uko egiten, dirulaguntza onartu egin dela ulertuko da.

4.– Diruz lagundutako jardueren ondorioz sor daitezkeen arriskuen ardura hartzea eta arrisku horiek estaltzeko aseguru egitea.



16. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

1.– Agindu honen babesean emandako laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Lehen ordainketa batean emandako zenbatekoaren % 75 ordainduko da, dirulaguntza eman dela jakinarazi ostean, hamar eguneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari espresuki uko egiten.

b) Gainerako % 25a, ordea, «Gastuaren justifikazioa» izeneko formulario normalizatua (II. eranskina) behar bezala beteta aurkeztean ordainduko da. Formulario horrekin batera, onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa edo handiagoa osatzen duten fakturak ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Agiri horiek aurkezteko epea 2022ko abenduaren 2an amaituko da, egun hori barne.

2.– Administrazioak laguntzak eta dirulaguntzak ordaindu ahal izan ditzan, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Hirugarrenen Erregistroaren datu-basean egon behar du erakunde eskatzaileak. Datu hori ofizioz egiaztatuko da.

Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko duzu bide elektronikoa erabiliz; bide hori Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailak ematen du, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

3.– Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman izana dela eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei dirulaguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

17. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko tokia eta modua.

1.– Justifikazioak modu elektronikoa aurkeztu ahaliko dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0085010>

2.– «Gastuaren justifikazioa» izeneko formulario normalizatua aurkeztuko da, behar bezala beteta eta faktura eta ordainagiriekin edo horien fotokopia konpultsatuekin batera. Formularioa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0085010>

3.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak dirulaguntza justifikatzeko jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari.

4.– 2. artikuluan esleitutako zenbatekoarekin lotutako gastuek zuzeneko lotura izan beharko dute antolatutako jarduerekin. Diru hauen izaera osagarria dela eta, faktura eta ordainagirien justifikazio-balioa beren edukiaren arabera izango da, eskala hauei jarraikiz:

a) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuen % 100.

b) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuen % 100.

c) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei zuzendutako bestelako jardueri dagokienez, 17.4.b) artikuluan jasota ez dauden jardueren kostuaren % 50 ordainduko da gehienez ere.

5.– Esleitutako dirulaguntza adierazitako epeetan justifikatu ezean edo esleitutako dirulaguntza baino gutxiago justifikatuz gero, ebazpena aldatzeko prozesua hasiko da, dagokion kopuruaren heinean, eta, hala badagokio, galdu egingo da laguntza eskuratzeko eskubidea.

18. artikulua.– Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea.

Laguntza emateko aintzat hartu diren baldintzen aldaketa orok, laguntzaren helburua bete dela jotzen bada, ebazpena aldatzea eragin ahal izango du, betiere dirulaguntzaren onuradun izateko ezarri diren gutxieneko baldintzei eusten bazaie. Ondorio horietarako, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak dagokion likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako laguntzen zenbatekoak berriz doituko dira, eta laguntza horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira. Hartzailleek, beraz, sobera jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte. Baldintzak aldatzeak emandako dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharra baldin badakar, 19. artikuluan araututako itzultze-prozedura hasiko da.

19 artikulua.– Ez-betetzearen araubidea.

1.– Dirulaguntzen pertsona onuradunek, nolahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubideari eutsi beharko diote, eta – Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoa aplikatuz – honako kasu hauetan, berriz, eman eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko dute, osorik edo partez, baita aplika daitezkeen legezko interesak ere (berandutze-interesa barne dela):

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorraren 37. artikulua 1. apartatuan jasotako itzulketa-kausaren bat egoteagatik edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikulutik 93. artikulura bitartean jasotako itzulketa-kausaren bat egoteagatik.

b) Erakunde onuradunak dirulaguntza ez erabiltzea eskatu zen eta eman zen xede bererako.

c) Ez gauzatzea dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera.

d) Ez justifikatzea interesa erakutsi zuen xede jakinetarako aplikatu izana.

e) Oro har ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. Tituluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), agindu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako betekizunak.

2.– Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/91 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENGOA

Agindu honetan araututako laguntzek ez dituzte betetzen EBko Funtzionamendurako Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritako baldintza guztiak, eta, beraz, ez dira Estatuaren laguntza, eta ez da beharrezkoa Europako Batzordeari jakinaraztea, helaraztea.

2022ko ekainaren 3a, ostirala

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 10a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2022ko ekainaren 3a, ostirala

## I. ERANSKINA

## UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASTETXEEN TITULAR DIREN IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

(\*) nahitaezko eremuak

Datu pertsonalak	
<b>Titularra</b>	
Kooperatibaren izena _____	Telefonoa _____
Identifikazio-agiria _____	Zenbakia _____
<b>Ordezkaria</b>	
Izena _____	Telefonoa _____
Lehenengo abizena _____	Bigarren abizena _____
Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea
Identifikazio-agiria _____	Zenbakia _____

## Jakinarazpen eta komunikazioetarako helbidea \*

 Elektronikoa

## Abisuak jasotzeko datuak

Doako abisu-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidezkoa edo SMS bidezkoa, jakinarazpenen edo komunikazioen bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Abisuetarako bidea	Telefono-zenbakia/Posta elektronikoa
SMSa	
Helbide elektronikoa	

## Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza \*

 Euskara     Gaztelania

**Erregistroko inskripzioa**

Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan inskribatuta dago

- BAI  EZ

**Erantzukizunpeko adierazpenak**

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

- Bateragarritasun-adierazpenak
  - Ez du xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jaso administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
  - Administrazio publikoren bati edo entitate pribaturen bati laguntza edo dirulaguntzaren bat eskatu eta eman egin diote (gai hori «Beste finantzaketa-iturri batzuk» agirian zehaztu behar duzu).
  - Administrazio publikoren bati edo entitate pribaturen bati laguntza edo dirulaguntzaren bat eskatu eta ebazpena jasotzeko dago (gai hori «Beste finantzaketa-iturri batzuk» agirian zehaztu behar duzu).
- Beste deklarazio batzuk
  - Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
  - Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, berariaz aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak<sup>1</sup>.
  - Egiazkoak dira eskabide honetan eta honi gehitutako agirietan adierazitako datuak.
  - Eskatzailea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan.
  - Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ditu.

**Lehen aurkeztutako agiriak**

Baimena ematen dut agiri hauek kontsultatzeko:

Agiriaren izena	Entregatzeko eguna	Agiria hartu zuen organoa

<sup>1</sup>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena betez.

**Baimenak.**

Araudi aplikagarriarekin bat etorritik, prozedura honen organo izapidegileak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunear:

- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)
  - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- HONEN KONTRA NAGO: prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztatzearen kontra (39/2015 Legearen 28. artikulua). Kontra egonez gero, prozeduran behar diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta beharrezko egiaztapenak egin ere.

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ (a)  
(Lekua) (Eguna)  
(Sinadura)

2022ko ekainaren 3a, ostirala

**UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASTETXEEN TITULAR DIREN  
IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK**

**II. ERANSKINA: AURREKONTUA**

**1. Kooperatibaren datuak**

Izen osoa	
Emaila	
Harremanetarako telef.	

IFK	
Erregistroan data	
Erregistro zk	

**2. Diharduen zentroaren izena**

Ikastetxearen izena			
Ikastetxearen kodea		Ikasleen % hau hartzen duela adierazten du:	

**3. Jardueren aurrekontua: 3. artikulua (zehaztu lerro bat jarduera bakoitzeko)**

3.a) Ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (% 100)
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
<b>Gutziko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

3.b) Ikasleei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (% 100)
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
<b>Gutziko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

3. c) Ikasleei zuzendutako jarduera osagarrien gastuak

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (% 50)
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
<b>Gutziko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

<b>ESKATUTAKOIA, GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>
<b>Eskatutako zenbatekoaren gaineko prestakuntza-ehunekoa</b>	<b>0,0%</b>

2022ko ekainaren 3a, ostirala

**UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASTETXEEN TITULAR DIREN  
IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK**

**III. ERANSKINA: GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

**1. Kooperatibaren datuak**

Izen osoa	
Emaila	
Harremanetarako telef.	

IFK	
Erregistroan data	
Erregistro zk	

**2. Diharduen zentroaren izena**

Ikastetxearen izena	
Ikastetxearen kodea	

**3. Jardueren justifikazioa: 3. artikulua (zehaztu lerro bat jarduera bakoitzeko)**

**3.a) Ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak**

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (%100)
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
		Familiak			0,00
<b>Gutzizko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

**3.b) Ikasleei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak**

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (%100)
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
<b>Gutzizko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

**3. c) Ikasleei zuzendutako jarduera osagarrien gastuak**

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (%50)
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
		Ikasleak			0,00
<b>Gutzizko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

<b>ESKATUTAKOAK, GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>
<b>Eskatutako zenbatekoaren gaineko prestakuntza-ehunekoak</b>	<b>0,0%</b>